

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

OGASUN, FINANTZA ETA AURREKONTU SAILA

Diputatuen Kontseiluaren 373/2016 Erabakia, ekainaren 14koa, onartzen duena Gasteizko udalerriko balioen txostenetik sortutako katastro balioak bulegoan bertan jakinaraztea

Diputatuen Kontseiluaren martxoaren 22ko 158/2016 Erabakiaren bitartez onartu zen Gasteizko udalerriko lurzoru eta hiri eraikuntza ondasun higiezinaren gaineko zergaren pekoen balioen txostena, zeina ondoren Diputatuen Kontseiluaren maiatzaren 24ko 301/2016 Erabakiaren bidez aldatu baitziren V. eranskinean jasota zegoen "erdi-sotoaren" definizioari dagokion zatian.

Bat etorri Ondasun Higiezinaren gaineko Zerga arautzen duen Foru Arauan xedatutakoarekin (42/1989 Foru Araua, uztailaren 19koa), katastroko balioak banan-banan jakinarazi behar zaizkio subjektu pasibo bakoitzari, edo subjektu pasiboa edo baimendutako pertsona horretarako jartzen diren bulego publikoen aurrera agertuz, balioak indarrean jarri aurreko urtea amaitu baino lehen.

Arabako Foru Aldundiak postaz jakinaraziko die subjektu pasiboari Gasteizko udalerriko katastro balio berriak.

Hala ere, segurtasun juridiko handiagoaren mesedetan, komenigarri iritzi zaio bulego publikoen aurrera agertuz ere jakinarazteari, postaz jakinaraztea lortu ez den kasuetan subjektu pasiboak edo pertsona baimenduak aukera izan dezan bulego publikoetan jasotzeko katastro balio berriak ezartzen dituzten egintzak.

Ikusirik Udal Zerga eta Katastro Zerbitzuak horren gainean egindako txostena.

Horregatik, Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatuak hala proposatuta eta Diputatuen Kontseiluak gaur bertan egindako bilkuran gaia aztertu ondoren, hau

ERABAKITZEN DUT

Lehena. Gasteizko udalerriko lurzoru eta hiri eraikuntzen balioen txostenetik ondorioztatzen diren katastro balioak jakinaraztea (txosten hori Diputatuen Kontseiluaren martxoaren 22ko 158/2016 erabakiaren bidez onartu zen, eta ondoren erabaki hori aldatu egin zen ondoren Diputatuen Kontseiluaren maiatzaren 24ko 301/2016 Erabakiaren bitartez). Jakinarazpena egingo da subjektu pasiboa edo horretarako baimendua bulego publikoen aurrera agertuz, hargatik eragotzi gabe subjektu pasibo bakoitzari banan-banan postaz jakinaraztea.

Horretarako, subjektu pasiboa edo baimendutako pertsona Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Sailaren bulegora etor daiteke (Samaniego 14, Gasteiz), dagokion jakinarazpena jasotzera.

Bigarrena. Aurreko idatz zatian aipatzen diren jakinarazpenak jasotzeko hamar eguneko epea egongo da, dagokion iragarkia ALHAOn argitaratzen den egunaren hurrengotik kontatzen hasita.

Hirugarrena. Jakinarazpenak jasotzeko hamar eguneko epea igaro eta subjektu pasiboak edo baimendutako pertsonak jaso ez baditu, jakinarazitzat joko da ondorio guztietarako.

Laugarrena. Bigarren idatz zatian ezarritakoarekin bat etorri, dagokion iragarkia ALHAOn argitaratuko da.

Bosgarrena. Erabaki hau ALHAOn argitaratuko da.

Gasteiz, 2016ko ekainaren 14a

Diputatu nagusia

RAMIRO GONZÁLEZ VICENTE

Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatua

JOSÉ LUIS CIMIANO RUIZ

Ogasun zuzendaria

TERESA VIGURI MARTÍNEZ